



ARARTEKOAREN AGERRALDIA EUSKO LEGEBILTZARRAREN OSOKO BILKURAN: 2005eko URTEKO TXOSTENA

I. SARRERA

Legebiltzarburu andrea, Mahaikideok, Lehendakari jauna, Lehendakariorde andrea, Gobernukideok, legebiltzar jaun-andreok, jaun-andreok, egunon guztioi.

Ohorea da niretzat Legebiltzarraren osoko bilkura honetan agertzea Ararteko erakundearen 2005. urteko ohiko txostenaren berri emateko. Izapide honetan, pozik betetzen dut, Legebiltzarraren ordezkari gisa, ganbera honi Ararteko erakundeak 2005ean burutu dituen jarduerak jakinarazteko betebeharra.

Joan den maiatzean, Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordearen aurrean txosten hauxe ezagutarazteko agertu nintzenez, analisi kuantitatibo bat egin nuen, erakundeak burututako jardura batzuk azaldu nituen eta administrazioko organo batzuek Arartekoari laguntzeko betebeharrari uko egiten diotela nabarmendu nuen. Azkenean, laburki azaldu nituen txostenean agertzen diren gomendio orokorrak. Beraz, osoko bilkura honetako mintzaldia batzorde haren aurrean egindakoaren osagarri denez gero, ez diet dagoeneko azalduta dauden gaiak helduko, baizik eta Euskal Autonomia Erkidegoan 2005ean eskubideak zein egoeratan zeuden baloratuko dut.

Ararteko erakundea estatutu bidez sortu zen, pertsona guztien eskubideak babesteko. Kalitateko demokrazia baten aurrean gauden ala ez neurtzeko baremoetako bat giza eskubideak errespetatzea da, herritarrek eraginkortasunez eta benetan giza eskubideez gozatzea. Arartekoak, Euskal Herriko Ombudsman edo herriaren defendatzaile denez, aurkeztu dituzten kexak hartu eta aztertu ez ezik, giza eskubideak egoera onean egon daitezela zaindu ere egin behar du, erakundea arautzen duen legeak hala aginduta. Horretarako, gizartearen errealitatean murgildu behar du, hura sakon eta xeheki ezagutzeko; herri-administrazioen jarduerak zaindu eta ikuskatu behar ditu –bai bultzatu ere–; gizakien eskubideekin zerikusia duten baliabideak, laguntzak eta zerbitzu publikoak ikuskatu behar ditu; eta, azkenik, gizartea eta herri-erakundeak sentiberago bihurtu behar ditu eta kontzientzia harrarazi behar die.

Adierazi dudanez, euskal herritarren edo, hobeto esanda, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren pertsonen eskubideak zertan diren baloratzea dagokigu foro honetan. Balorazio hori jardueretan oinarrituta dago, herritarrek hala eskatuta edo gure kabuz iaz burutu genituen jardueretan, hain justu. Horretarako, kontuan hartuko ditugu herri-administrazioei bidali dizkiegun iradokizun eta gomendioen sail zabala, irregulartasunen bat antzeman antzeman dugun kexa-espedituetan egindako jarduerak (500 inguru), iaz aurkeztu genituen bi txosten berezietan bildutakoak, 86; edo egin ditugun 21 gomendio orokorrak. Gomendio eta iradokizun horiek guztiek zera erakusten dute, zorrotza eta aurreratua izan behar duen gure ikuspegitik begiratuta: herri-administrazioen jardueretan gabeziak, jardura eza, akatsak, itzalak, irregularitateak eta hobetu beharreko gauzak daudela, eskubideak gauzatzeari eta eskubideak babesteko sistemari



dagokienez (horietako gehienak eskubide sozialak dira). Jarduera horien berri zehatzagoa aurkituko duzue urteko txostenean.

Iaz aztertu eta baloratu genituen kexa-espeditateetatik ondorioztatzen denez, asko dira hobetu daitezkeen jarduera publikoak, euskal herritarren eskubideak ezin hobeto babesteko. Jarduera horiek Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien sail guztiei dagozkie, baita udalei ere, eta Estatuko administrazioaren eta Justizia administrazioaren jardueri buruzko kexak izapidetzeko eskumenik ez dugun arren, ezin dut aipatu gabe utzi beren jarduera-esparruetan ere eskubideen babesa hobetu daitekeela. Hezkuntzarako eskubidea, osasunerako eskubidea, era askotako prestazio sozial edo ekonomiko jasotzeko eskubidea, funtzio publikoan berdintasunez sartzeko eskubidea, ingurumen egoki baterako eskubidea, diglosia eta euskararen ageriko gutxitzea bizi den inguru soziolinguistiko honetan Eerkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko eskubidea, etxebizitza izateko eskubidea, horiek guztiak legeriak onartutako eskubideak dira, baina, eguneroko erabileran, zenbaitetan, esan bezala, gabeziak, hutsuneak, akatsak dituzte, edo, areago, lege-urratzeak gertatzen dira politika publikoen ondorioz.

Eskubidea babesteko sistema dela-eta, guk izan behar dugun kalitateko demokraziaren edo demokrazia aurreratuaren ikuspegitik, zuekin partekatu nahi ditut bereziki deigarriak iruditzen zaizkigun bi gogoeta. Lehenik, gure ustez, beharrezkoa da euskal administrazio publikoek herritarrekin harremanak izateko bideak eta protokoloak hobetzeko ahalegin handia egin dezaten, informatzeko eta parte hartzeko bideak hobetuz eta administrazio zuzenaren printzipioarekin bat datozen portaera-kodeak bereganatuz. Kezkaturik ikusten dugu, kexa ugaritan, administrazioak urruntasunezko, nagusikeriazko eta herritarra gaizki artatzeko jarrera eta portaera dituela, eta portaera gaitzesgarri horietan jausten direla bai politika-arduradunak, bai herri-funtzionarioak ere.

Era berean, azpimarratu behar dugu erabat bateragarri egin behar direla herritarren segurtasuna bermatzea eta beraien askatasuna, eta, beraz, delinkuentziaren kontrako borroka eta atxilotuen edo poliziarekin tratua izan behar dutenen oinarritzko eskubideak kontu handiz errespetatzea. Polizia guztiek egiten duten lana funtsezkoa da legearen nagusitasunean oinarritutako gizarte demokratiko batean, eta eskubideak bermatzen dituen erakundea garenez, zorionak eman behar dizkiegu batzuetan hain egoera zailean egiten duten lan horrengatik. Baina, aldi berean, gogorarazi behar dugu gizarte demokratikoaren oinarritzko zutabe bat giza eskubideen nagusitasuna dela, eta, hortaz, protokolo argiak behar direla, polizi jardueretan eta atxiloteta-esparruetan eskubideak eta balio demokratikoak zalantza izpirik gabe bete daitezen. Kalitateko demokrazia batean, arauak eta neurriak muturreraino eraman behar dira, torturarik edo tratu txar fisiko nahiz psikologikorik egon ez dadin eta gizakiak beraien duintasuna kaltetu gabe trata ditzaten. Horren haritik, onak iruditzen zaizkit Herrizaingo Sailak oraintsu iragarri dituen neurriak ertzain-etxeetan eskubideak bermatzeko sistema hobetzeko, Arartekoak egindako gomendioei jarraiki, eta bide horretan aurrera egitera animatzen dut sail hori. Aldi berean, udaltzaingo jarduerak aipatutako parametroetara doi ditzatela eskatzen diet udal agintariei.

Azalpen honi ekiteko, ikuspegi hau hartuko dut oinarri: beren eskubideak erabiltzeko orduan benetan ahulduta, egoera arriskutsuan edo oztopatuta dauden edo egon daitezkeen talde eta



errealitateen eremuan erakunde honek egiten duen lana. Sinetsiezadazue talde horiek denak batzen baditugu, biztanleriaren gehiengoaz hitz egiten ari garela, gutxi baitira beren eskubideak erabat eta berdintasunez erabiltzeko orduan modu kaltegarrian eragin duen edo dezakeen zertzeladaren bat bizi izan ez duten pertsonak.

Ararteko erakundeak, azken urteotan, hainbat jarduera-lerro eskaini dizkie bere ustez babes-premia berezia duten gizarteko talde edo sektore batzuei: emakumeei, adingabeei, atzerritarrei, adintsuei eta ahalmen urrituei. Arlo horietan egindako lanean oinarrituko da nire azalpenaren zati handi bat. Jarraian aipatuko ditudan ia sektore guztietan lehendik lanean ari baginen ere, orain beste arlo batzuk formalki sortzea erabaki dugu, gure jarduerak hobeto sistematizatzeko asmoz. Hauexek dira:

- terrorismoaren biktimak
- beren osasun fisikoari nahiz mentalari eragiten dion gaitz kronikoa duten pertsonak
- joera homosexualeko pertsonak edo identitate transexuala dutenak
- askatasunik gabeko pertsonak: presoak eta atxilotuak
- pobrezian edo eskasian bizi direnak

Lehentasunezko arreta behar duten taldeak deritzegun horiei dagozkien arloak lantzeko, gure erakundea arautzeko legeak gure esku jarri dituen tresnak erabiltzen ditugu, lehen ere aipatu ditugunak: kexa-espedituentzako –alde batek hala eskatuta edo ofizioz hasiak–, txosten bereziak prestatzea edo aurreko urteetan egindakoen jarraipen-lana burutzea, zentro, egoitza eta baliabide ezberdinetan ikusketak eta bisitak egitea, gomendio orokorrak luzatzea. Era berean, talde horien esparruan diharduten elkarte eta erakundeekin harreman estua izaten ahalegintzen gara, gizarte-errealitateari buruzko informazio gaurkotua izateko.

Garrantzitsua iruditzen zait agintari publikoei berariaz agindu zaiena gogora ekartzea, alegia, beharrezko baldintzak sustatu behar dituztela pertsonen eta beraiek osatzen dituzten taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eraginkorrak izan daitezen, horiek erabat gauzatzea eragozten edo oztopatzen duten trabak kenduz. Agerikoa denez, eskubideak eta askatasunak formalki onartuta egonagatik ere, euskal herritar anitzek ez dituzte horiek egiaz edo erabat gauzatzen. Ezin dugu ahaztu ustezko ongizate-gizarte honetan badirela baztertutako gizakiak, sistemaren kanpoaldean edo sistematik kanpo bizirauten dutenak, arrazoi ekonomikoengatik edo gizarte-egituran txertatu ez direlako edo oker txertatu direlako. Bestalde, oraindik ere herritar ugari bereizkeria egoerak jasaten ditu, maila formalean ez bada ere, bai errealitate eta gizarte mailan. Gainera, oraingoa bezalako gizarte konplexuan, bazterkeria bikoitz eta hirukoitzeko kasuak ere aurkitzen ditugu: adibidez, bakarrik dauden adingabe atzerritarrak; gizarte bazterkeria pairatzen duten ezindu psikikoak; emakume presoak, gaitz kronikoak dituzten adintsuak, eta horrela zerrenda amaigabe bat.

II. Lehenik, emakumeen arazoei eskainitako arreta bereziaz hitz egingo dut.



Nabarmendu nahi dut deigarria eta tristea dela XXI. mendean, Europako gizarte garatu batean, emakumeak, oraindik ere, giza eskubideak babesteko erakundeen arreta berezia behar duten taldeen artean sartuta jarraitu behar izatea. Hala ere, emakumeek oraindik bereziki kontrakoak diren baldintzak jasaten jarraitzen dute bizitzako arlo askotan, eta, aldi berean, zailtasunak eta berariazko oztopoak aurkitzen dituzte beren eskubideak erabiltzeko orduan.

Giza eskubideen unibertsalizazioa eta, zehazki, generoagatik gertatzen diren desberdintasunak errotik kentzea ezinbesteko oinarria dira gizakiaren garapenean aurrera egiteko eta bizikidetasun demokratikoa eta baketsua lortzeko.

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren ikuspegitik emakumeak gure autonomia erkidegoan zein egoeratan bizi diren aztertzen badugu, araudiari dagokion mugarri garrantzitsu bat aipatu behar dugu, 2005. urtean gertatua.

Eusko Legebiltzarrak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea onetsi zuen 2005eko otsailaren 18an. Bai eremu publikoan bai pribatuan, lege horrek parekotasuna sustatu nahi du eta emakumeek pairatzen duten bereizkeria deuseztatu.

Lege horrek bere baitan biltzen ditu bereizkeriaren kontrako Zuzenbidea deritzonaren kategoria eta nozio juridikoetako asko, eta herri-erakundeek Konstituzioaren 9.2 artikuluan adierazitako berdintasun benetakoa eta eraginkorra sustatu behar dutela zehazten du, ezin eztabaidatzeko eran askotan, administrazioen jarduerarik ezari aurre egiteko printzipio orokor gisa. Lehendik ere Konstituzio-agindu zuzena zenaren araupetze zehatz horrek erraztu egingo du, zalantzarik gabe, herri administrazioek sexuen arteko berdintasunaren arloan dituzten legezketasun mugak ezagutzera; gainera, betebeharrak publiko berri horiek inbokatze aukera bermatuko du, eta horrela, herritarrei horiek zorrotz bete daitezkeen eskatzeko gaitasuna bermatuko zaie.

Herri-agintariek neurriak hartu beharko dituzte laneko betebeharrak eta bizitza pribatua bateragarri egiteko. Horren haritik, pozik azpimarratu behar da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak *norberaren* bizitza, familiakoa eta lanekoa bateragarri egitearen kontzeptua jaso duela lehenengoz, eta ezinbestean familiarekin zerikusirik ez duten bizitza pribatuko kontuetara zabaldu duela laneko bateragarritasunaren kontzeptua. Horrek edozein pertsonaren giza beharren inguruko ikuspegi zabalagoa adierazten du; behar horiek, horrela, beste pertsona batzuen zaintza zorrotzetik edo familia kontzeptutik bereizita gelditzen dira, familia pertsona guztiak barne hartzen ez dituen unitatetzat hartuta.

Bereziki kezkarria da etxeko langileek Euskadin bizi duten egoera; emakume horietariko asko eskasia larrian egiten ari direlako lan, soldatei, lanaldiari eta Gizarte Segurantzari sartuta ez egoteari dagokienez. Gai horretan, Eusko Jaurlaritzak, zigortzeko eta ikuskatzeko dituen ahalmenak erabiliz, beharrezko neurriak hartu beharko lituzke, enplegatzaileek langile horiei Gizarte Segurantzari alta emateko duten betebeharrak benetan kontrolatzeko, baita legezko baldintza guztiak betetzeko ere, soldadari eta lanaldiari nahiz oporrei dagokienez. Kasu hauetan, sarritan bereizkeria bikoitza pairatzen dute, emakume eta atzeritar izateagatik.



Halaber, idatziz jasota utzi nahi dugu herri-administrazio batzuek hainbat egoeratan bereizkeriaz jokatzeko dutela behin eta berriz, eta egoerok oraindik ebatzi gabe daudela. Batik bat kultura, kirol eta herriko jaien esparruei eragiten diete. Dagoeneko adierazi dugu zuzeneko diskriminazioak edo agerikoak harreman pribatuen esparruan gertatzen direla gehienbat. Alabaina, harreman horiek alda daitezten, herri-agintariak funtsezko eginkizuna dutela nabarmentzen saiatu gara. Hain zuzen, benetako berdintasun eraginkorra sustatzeko agintariak duten oinarrizko erantzukizuna bere gain har dezatela eskatu dugu, eta inhibizio edo geldikeriazko jarrerari utzi behar zaiola azpimarratu dugu, izan ere, gehiegitan, jarrera horrek diskriminazioak betikotzea ahalbidetzen du, pribatuak direnez, estalita daudelako. Berdintasunerako euskal lege berriak borondate politiko ausarta erakusten du gizarte honek oraindik duen emakumeen eta gizonen egiturazko desberdintasuna deuseztatzeko, eta, hortaz, tresna juridiko egokia eta nahikoa izan behar du sexuagatiko bereizkeriari aurre egiteko, edonon sortzen dela ere.

Ararteko honentzat arras garrantzitsua da azpimarratzea badela gehiengoaren erabakietatik kanpo dagoen eremu bat, erabakiezinenaren esparrua dei litekeena, oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak bere baitan hartzen dituena. Ezein gehiengok ezin du erabaki bizitzaz, norberaren askatasunaz, onartutako eskubideak gauzatzeaz.

Erakunde honek eta beste batzuek (Legebiltzar honek, besteak beste) behin eta berriz irmo adierazi dugu, azken hamar urteotan, Irun eta Hondarribiko Udalek neurriak jarri behar dituztela bi herri horietako emakumeei alardeetan gizonen baldintza beretan parte hartzeko eskubidea askatasunez eta bakean gauzatzea eragozten dien zentzugabekeria anakroniko eta demokraziaren aurkakoa buka dadin, euskal herritarrentzat ulertezina eta onartezina baita.

Koherentziak eta erantzukizunaren zentzuak, baita Estatu hau demokratikoa izateak ere, ardura politikoko pertsona guztiak gai honetan behar den adostasuna ez atzeratzera bultzatu beharko lituzkete, urtero emakumeen kontra burutzen den tolerantziaren kontrako, bereizkeriazko eta duintasunaren kontrako ikuskizun hori ahalbidetzen duten baldintzak behin betiko kentzeko.

Bizi dugun garai honetako errealitaterik izugarrien eta beldurgarrienetako bat astakirten batzuek emakumeen kontra erabiltzen duten indarkeria sexista eta matxista da, haien oinarrizko eskubide funtsezkoenei modu ikaragarrian eraso eginez: hain justu, bizitzarako, osotasun fisiko eta moralerako, duintasunerako eta askatasunerako eskubideei.

Herri-agintariak tratu txarrak edo mehatxuak jaso dituzten emakumeen beharrei aurre egiteko, ezinbestekoa da diziplina arteko trataera egitea. Trataera horrek zerikusia du, besteak beste, jarduera judizialekin, laguntza juridikoarekin, gizarte eta harrera zerbitzuen funtzionamenduarekin, etxebizitza lortzeko aukerarekin eta emakume biktimek gizartean, lanean eta ekonomian normalizazioa lortzeko politikekin. Funtsezkoa da herri-agintarien erantzuna tratu txarrak jasandako emakumeen beharretara egokitzea; hala ere, berriro diogu, pertsona guztien benetako berdintasunak bakarrik ahalbidetuko du generoagatiko indarkeria desagerraraztea, horren sorburua gizonen eta emakumeen arteko egiturazko desberdintasuna baita.



Gizartea pixkanaka jabetzen ari da generoagatiko indarkeria larria dela eta, beraz, herritarrek agintari publikoei gehiago parte hartzeko eskatu behar dietela. Horren ondorioz, erakundeak konpromiso handiagoa hartzen ari dira bere gain indarkeria horri aurre egiteko.

Kasu askotan, ordea, tratu txarrak jasandako emakumeek eragozpen larriak aurkitzen dituzte epaitegiekin dituzten harremanetan, baita erakundeei eskatzen dieten laguntza administrazioaren zenbait eremutan bideratzerakoan ere. Behar-beharrezkoa iruditzen zaigu gai honetan eskumenak dituzten administrazio guztiek koordinatzeko ahaleginak egitea, emakume horiei ematen zaien laguntza bizkortu eta errazteko. Era berean, ezinbestekoa da gai honetan egiten diren administrazio-jarduerak gero ebaluatzea, gizarteko gaitz larri horren kontra borrokatzeko hasi diren ahalegin publikoak benetan eraginkorrak diren, arrakasta izan edo porrot egin duten egiaztatzeko.

III. Adingabeen arazoei eskaintzen zaien berariazko arretari buruz, zera azpimarratu behar da: adingabeak eskubideak dituzten pertsonak dira, baina, gainera, beren ezaugarriengatik, bereziki ahula den biztanleriaren sektore bat osatzen dute eta bermatu behar diren berariazko eskubideak dituzte. Horregatik, berariazko eta lehentasunezko arreta behar duen taldeztat jotzen du Arartekoak.

Aldi berean, badira beren eskubideei dagokienez arrisku berezian dauden talde batzuk: babesik gabeko haur eta nerabeak, bakarrik dauden adingabe atzerritarrak; adingabe lege-hausleak; hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak; buru-osasunezko arazoak dituzten haur eta nerabeak, edo adingabe atxilotuak.

Orain azaleratzen ari den arazo zehatz bat sakonki aztertu dugu aurten: beren amek jasandako tratu txarrek zuzenean eragin dien adingabeak artatzea. Oso garrantzitsua da horrelako arazoak antzemateko eta berehala jarduteko baliabideak jartzea, eta programak, zerbitzuak eta ekimenak abiaraztea, berariaz adingabe horien egoera hobetzeko edo izan dituzten eragin kaltegarriak arintzeko.

Arazoa antzemateari dagokionez, hasieran behintzat, ohiko bideak erabiltzen dira: oinarrizko gizarte-zerbitzuen jakinarazpenak, Fiskaltzarenak, ospitaleenak... Gai honen gainean, hobetzeko proposamen gisa, berriro adierazten dugu indarkeriaren biktima izan diren emakumeei laguntza ematen dieten baliabideetan beretan profesionalak izan behar dituztela, emakume horien seme-alabek ere laguntzarik eta jarduerarik behar ote duten ahalik eta azkarren antzemateko. Horrela, profesionalen falta sumatzen da tratu txarren biktima diren emakumeentzako larrialdietako harrera-baliabide askotan. Egoera horiei aurre egiteko eskumenak dituzten eta horretan diharduten erakunde eta zerbitzu guztien arteko koordinazioa hobetu behar dela adieraztean sortzen da, antza, adostasunik handiena.

Bakarrik dauden adingabe atzerritarrei buruz, Berrizen lehen harrerarako behin-behineko zentro bat sortu dela aipatu behar dugu, eta oso onak iruditzen zaizkigula zentro horretako taldeak eta udaleko arduradunek edo zerbitzuek burutu dituzten ekimenak erkidegoari horren



berri emateko, komunikazioa eta inguruko baliabideen erabilera errazteko, herriko gazteak parte hartzera bultzatzeko eta baliabide berriaren kontra sor litezkeen erreakzioak saihesteko.

Aldiz, kaltegarritzat jo behar ditugu bakarrik dauden adingabe atzerritarrak hartzeko asmoz Langraiz Okan zentro berri bat zabaltzea eragozteko burutu diren jarduerak. Kezkatuta gaude honelakoa bezalako kasuetan, guztiz beharrezkoak diren eta, gehienetan, oso egoera ahulean bizi diren taldeei eragiten dieten gizarte-baliabideak sortzearen kontrako erreakzioak daudelako.

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei dagokienez, ikasle horiek modu orekatuan banatzeko neurriak har daitezzen eskatu da, batez ere ahalmen urriko ikasleak, etorkinak eta ijitoak, “eskola ghettoak” osa daitezzen eragozteko. Honelako neurriak proposatu dira: ratioak ezartzea, matrikulatzeko arauak berrikustea, ikasle bat ikastetxe batetik bestera bidaltzean edo ezkutuko egozteak gertatzen direnean, jarraipen-lana egitea.

Adingabe lege-hausleak direla eta, erakundeak bere txosten bereziaren inguruan egindako jarraipen-lanetik haxe azpimarratu behar da: legean xedatutako neurriak hartzeko orduan, gehikuntza nabarmena izan dela. Aipatzekoa da erkidegoaren aldeko prestazioek lortu duten garrantzia, izan ere, zorionez, horixe da gehien aplikatu den neurria (kasu guztien erdietan ia-ia). Azken bolada honetan, kezkatu egiten gaituzten eta herri-agintari eskudunek kontuan hartu beharko lituzketen gai batzuk azaldu dira:

- Babes-sistemetatik datozen adingabe lege-hausle ugari daude barneratuta (batez ere bakarrik dauden adingabe atzerritarrak); beraz, bi sistemen arteko lotura sakonki aztertu beharra dago.
- Terrorismo edo kale borrokako ekintzetan nahastutako adingabeen kasuetan (horietan Audientzia Nazionalak hartzen du parte), formulak garatu behar dira ezarritako neurriak beren familia-ingurutik gertuago bete ahal izan ditzaten.
- Zerbitzuen araudia ez dago erregulatuta, nahiz eta urteak daramatzagun hori beharrezkoa dela adierazten, alde guztien berme gisa.
- Barneratzeen kopurua bere horretan mantentzen bada ere, egonaldiak luzeagoak dira (eta, hortaz, zenbat eta denbora luzeagoa eman barneratuta, orduan eta gehiago okupatzen dira dauden plazak).
- Gero eta gehiago dira beren gurasoen kontra indarkeriazko delituak egiten dituzten neska-mutilak, baita patologia psikiko larriak dituzten nerabe edo gazteak ere.
- Lehenbiziko aldiz, eskolako jazarpengatik ezarritako neurri zuzentzaileak betearazi dira.

2005. urtean bi arau garrantzitsu jarri dira indarrean: 5/2000 Lege Organikoaren Araudia eta Haurrak eta Nerabeak Artatzeko eta Babesteko Legea, Eusko Legebiltzarrak iazko otsailan onartua. Horiek aplikatzea eta garatzea funtsezkoa da, batik bat barneratze-zentroen jarduerarako arauak erregulatzeari eta zigor araubideari dagokienez.

Jarduera-prozedura batzuk iaz hasi zituen Justizia Sailak eta egiteko geratu ziren beste protokolo batzuk, hala nola, bisitaldiei, erregistroei, lekualdaketei edo osasun laguntzari buruzkoak.



Edonola, legeak ezarritako urtebeteko epea igaro den arren, oraindik garatzeke daude Haurrak eta Nerabeak Artatzeko eta Babesteko Legean agindutako xedapen guztiak.

Eskolako jazarpena dela eta, jasotako kexak kezagarriak dira. Arazo hau, beste batzuekin batera, ikertzen ari gara. Ikerlana oso aurreratuta dago eta Legebiltzar honi txosten monografiko gisa aurkeztuko diot.

Arabako sasoikako langileen seme-alaben hezkuntza-premiei dagokienez, onartu beharra dago Hezkuntza Sailak adingabe horien eskolatzearrazteko egin duen ahalegina. Kezkatzekoa da, ordea, 12 edo 13 urtetik gorako haurrak eskolatzeari ez lortzea.

Orobat, gauza on bezala, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Gaietako Sailak burutzen dituen jarduerak azpimarratu nahi ditut: aisialdirako jarduerak, norberaren higiegi edo elikadurarako ohiturak garatzeko jarduerak, edo adingabe horientzat oso garrantzitsuak diren osasun-beharren inguruko orientazio-jarduerak.

IV. Ondoren, adinekoen arazoei helduko diet.

Gure erkidegoan, adinekoek gero eta ugariagoa den biztanle-sektorea osatzen dute. Oso denbora laburrean, gure lurraldean bizi diren bost pertsonatetik batek 65 urtetik gora izango ditu eta horietatik askok 80 urte baino gehiago.

Erakunde honek beti lehentasuneko arreta eskaini die adinekoiei. Dakizuenez, 90eko hamarkadan Legebiltzar honi bi txosten aurkeztu genizkion, Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoen egoitzako eta egoitzaz kanpoko arretaren gainekoak. Iaz beste txosten bat aurkeztu genuen adinekoiei ematen zaien laguntzaren egoeraz, eta horri esker egiaztatu ahal izan dugu egoerak nolako bilakaera izan duen demografia-, araudi- eta laguntza-aldaketa garrantzizkoak gertatu diren hamarkada honetan.

Ez dut adinekoen arretari buruzko txosten horren edukia errepikatuko, 2005ean eman baitzitzaion Legebiltzarrari eta beraren edukia Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaren Batzordearen aurrean azaldu baitzen. Aldiz, egokia iruditzen zait gutxienezko kalitateko zerbitzuak bermatzeko garrantzitsutzat jotzen ditudan alderdi batzuk nabarmentzea. Ezer baino lehen, jendaurrean adierazi nahi dut hiru foru aldundiek azken urteotan egin duten ahalegin handia, baina demografia-aurreikuspenak eta adinekoentzako egungo gizarte-baliabideak nahikoa ez direla kontuan izanda, inbertsiozko ahalegin hori areagotu beharko da, biztanleriaren sektore horren beharrei erantzuteko.

- Testuinguru juridiko-administratiboari buruz, ontzat jo dugun arren, oraindik ere osatu beharra dagoela uste dugu, oinarritzko gizarte-zerbitzuak eta etxeko laguntza-zerbitzua autonomia erkidego mailan arautuz.



- Egoitzetako baliabideek orain baino arreta handiagoa jarri beharko dute autonomia-arazo larriak dituzten adintsuengan.
- Interesgarria da egoitza moten dibertsifikazio-prozesua, aukerak zabaldu baitira, esaterako, etxebizitza komunitario eta babespeko apartamentuen bidez; orain hamabost urte ez zegoen halakorik. Hala ere, Europako beste herrialde batzuetan dauden hurbiltasunezko egoitza-formulak aztertzea komeniko litzateke, eta, zehazkiago, arreta emateko sistema integratu bat izan beharko genuke helburu, adineko pertsonaren beharrei zerbitzu komunitario batzuen jarduera koordinatuaren bidez erantzuteko.
- Berriz hausnartu beharko litzateke etxebizitza komunitarioak pertsona autonomoentzako bakarrik direla pentsatzeko gaur egun dagoen joera.
- Autonomia erkidegoan finkatzen ari den eguneko zentroaren eredia ez dator bat hurbiltasunezko zerbitzu batek berez dituen ezaugarriekin, izan ere, lurralde-eremu zabalegia hartzen du, handiegia da eta bere funtzionamendua ez da oso malgua. Gainera, malgutu egin beharko litzateke eguneko zentroetako zerbitzuen erabilera, erabilera partzial eta norberaren beharretara egokitua egiteko aukera benetan bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuz.
- Gizarte-zerbitzu orokorren arloan, baina bereziki adinekoak artatzeari dagokionean, egiaz arreta emateko hiru eredu desberdin daude, bat lurralde historiko bakoitzean. Lurralde bakoitzaren eskumen-eremua guztiz errespetatuta ere, beharrezkoa dirudi irizpide komunak ezartzea, batez ere zerbitzuetarako irispidean, desberdintasun egoerak ekiditeko.
- Ez dut aipatu gabe utzi nahi administrazio publikoek erakunde pribatuekin oraintsu egin duten ituna egoera konplexu eta gatazkatsuak sortzen ari dela, eta horiei erantzun adostuak, konprometitua eta zuzenak eman behar zaizkiela.

V. Inmigrazioa, baita EAEn duen gero eta eragin handiagoa ere, egoera gatazkatsuak sortzen ari da, bai atzerritarrentzat, bai **gutxiengo etnikoentzat**.

Jarrera diskriminatzaile asko alor pribatuan gertatzen dira (lana, etxebizitza...), non, tamalez, zenbait pertsonak jarrera xenofobo eta arbuiatzaileak edo abusuzkoak dituzten etorkin atzerritarrekin. Jarrera horietan, batzuetan sustrai sakonak dituzten aurreiritzi eta estereotipoek eragiten dute, biztanleria atzerritarra delitu-egintzak burutzearekin lotzen duten estereotipoek.

Hedabideek atzerritarrekin zerikusia duten berriak modu egokian tratatzea lagungarri izan daiteke etorkinen irudi gutxiesgarria edo ezkorra ez emateko. Horregatik, garrantzitsua iruditzen zaigu polizia kidegoek inmigrazioaz ematen duten informazioaren trataeraz 2004. urtean egin genuen gomendio orokorra betetzea.

Administrazioak kontu handiagokoz tratatu behar du informazioa, eta sentsibilizatzeko-kanpainak sustatu behar ditu, gizaki guztien eskubideak errespetatuko dituen bizikidetasun-eredua lortzen laguntzeko.



Beraien jardueretan gomendio horiek kontuan har ditzatela berariaz eskatu eta gero, Euskal Herriko udal batzuk neurriak hartzeko prest agertu dira, atzerritarren irudi ezkorrik ez emateko. Ez, ordea, Herrizaingo Saila, ez baitie erantzun gure laguntza-eskaerei.

2005. urtean bi jarduera oso garrantzitsu burutu dira atzerritarren egoerari eta beren eskubideak gauzatzeari begira:

- atzerritarren egoera juridikoa normalizatzeko prozedura berezia hasi zen, eta
- 2005eko abenduan, indarrean jarri zen modu iraunkorrean hemen bizi izateko baimenik ez duten atzerritarren erroldatzea iraungitzeari buruzko legezko xedapena.

Bere egoera juridikoa normalizatzea da anitz atzerritarren kezka nagusia. Erregularizatze prozesuan udalen esku-hartzea funtsezkoa izan da, bai agiriak lortzeko ohiko prozesuan (gizarte txostenak prestatuz, hemen finkatuta egoteagatik egoitza-baimena emateko), bai agiriak lortzeko prozesu berezian ere (errolda-ziurtagiriak emanez, egoitza egiaztatzeko).

Errolda eskubideak gauzatzeko arras garrantzitsua denez gero, erakunde honek hainbat aldiz jardun behar izan du atzerritarren eskubideak babesteko. Horrela, beharrezkoa iruditu zaigu araudi berria eskubideak babesteko ikuspegitik aztertzea, eta gomendio orokor bat egin eta bidali zaie EAEko udalei, gai honen gainean: **udalek erroldatzea eta erroldatzearen iraungitzea erabakitzeke duten prozedura, eta Europako Batasunekoak ez diren atzerritarrei buruzko datuak beste herri-administrazio batzuei ematea.**

Ijito arrazako pertsonak, historian barrena, gizarte-zerbitzu, baliabide eta aukerak erabiltzeko aukera gutxiago izan dute. Euskal Herrian ijito herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako plana, ikus daitekeenez, integrazioerako politika aktiboaren lehen urratsa da. Plan horrek ezartzen dituen neurriak beteko direla bermatzeko, baliabideak eman behar dira. Bereizkeriaren aurkako borroka funtsezkoa da gizarteko oztopoak gainditzeko eta gizarte-bazterketari aurre egiteko. Horregatik, administrazioek ahalegin handiagoak egin behar dituzte, jarduera diskriminatzaileak eragozteko eta, kasu honetan ere, informazioa egoki tratatzeko.

Administrazioek gauzatu dituzten jarduera gehienak gizarte-bazterketaren kontrako borrokaren ikuspegitik egin dira. Alabaina, horrez gain, tratu berdintasunarekin, kultura identitatea onartzearekin edo toki komunetan parte hartzea sustatzearekin lotutako ekimen publikoak abiarazi behar dira.

Bestalde, ibilgailuetan batetik bestera ibiltzen diren eta kokaleku baten bila dabilzan atzerritarrak iristen ari dira. Horren aurrean, udalak era askotako erantzunak ematen ari dira: esate baterako, ez diete erantzuten haien erroldatzeko eskabideei –horrela, gizarte zerbitzuetan etengabe arreta jasotzeko aukera kentzen zaie–, udal batzuen ustez, ibilgailu batek ez baititu betetzen bizigarritasun baldintzak; edo ez diete ibilgailua herri-bidean aparkatzen uzten, eta horregatik, beste udalherri batera edo batzuetara joan behar izaten dute kokaleku bila. Talde



horretan, askotan adingabeak egoten dira. Horrek izugarri kezkatzen gaitu eta udalen erantzunean kontuan hartu beharko litzatekeela uste dugu.

Gehienbat beren ibilgailuetan bizi diren pertsonak atzerritar ijitoak izan ohi dira, Errumaniatik etorriak. Europako Batasuna azken urteotan ohartarazten ari da horien integrazioa errazteko neurriak hartu behar direla.

Integratzeko guneak sustatu beharko lirateke, eta ez litzateke oztopatu behar udalerrietan ijito arrazako pertsonak kokatzea. Horixe adierazten dute Europako Batasuneko eta Euskal Autonomia Erkidegoko diskriminazioaren eta gizarte-bazterketaren kontrako araudiek, eta, besteak beste, ijito herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako euskal planak. Plan horrek honako helburu orokor hau ezartzen du: beharrezkoak diren aldaketak bultzatzea, oztopoak ken daitezen eta ijitoek baliabide eta zerbitzu guztiak jasotzeko aukera izan dezaten.

VI. Ahalmen urrituen arazoak ere aipatu nahi ditut.

Ahalmen urrituek traba ikaragarriak aurkitzen dituzte lan-merkatuan sartzeko, bai beren eguneroko bizitzan ere, sarritan ez dutelako garraio-bideetan sartzetik izaten, edo, oraindik ere, hirigintza-edo arkitektura-oztopoak daudelako.

Gauza jakina da abenduaren 4ko 20/1997 Legeak, Irisgarritasuna Sustatzekoak, baita hori garatzen duten dekretuek ere, hainbat tresna aurreikusi dituztela irisgarritasuna sustatzeko: kuoten erreserba, lau urteroko programak, sustapen-politikak.

Hala eta guztiz ere, gogorarazi nahi dut herri-administrazioek eta, bereziki, euskal udalek, zoritxarrez, ez dituztela behar adina erabili legeak eskura jarri dizkien tresnak eta, kasu ugarian, argiro urratzen dituztela araudian agindutakoak.

Sustapen-politikak eta kontrol-jarduerak ere ez dira nahikoak, ia ez dago zigor-jarduerarik. Zerbitzu publikoak bere baitan hartzen dituzten eraikin franko iristezinak dira, eta hori bereziki kezkarria da hezkuntza-, osasun- eta gizarte-zerbitzuetan.

Nahiz eta herri-agintariak irisgarritasunezko araudia betetzeko beharrezko neurri batzuk hartzen hasi diren, ahalegin berezia egin beharra dago eraikin publiko horietarako sarbidea bermatzeko.

Horren haritik, erakunde honek hauxe adierazi zuen *EAEn erabilera publikoa duten eraikinen irisgarritasuna* izenburuko txosten berezian: sektoreko alorren artean, egoera txarrena hezkuntza alorrean antzeman zela, eta osasun alorrean ere bai. Hezkuntzaren sarea eta, gutxixeago, Osakidetzarena, aspaldiko eraikinen inguruan egituratuta dagoelako gertatzen da hori, neurri batean, eta eraikinok zenbaitetan beste erabilera batzuetarako jaso zirelako. Dena den, beste ondorio hau ere atera zen lortutako datuetatik: jasotako oinordetza hori ez zela behar bezala orekatu eraikin horiek egokitzeko behar zen ahalegina eginez.



Arrazoi horregatik, Hezkuntza Sailari sarritan adierazi genion legezko agindua bete eta zegokion lau urteroko programa egin behar zela, bada, programa hori eratuz, benetako egoeraren diagnostikoa lortuko zen, eta lanak egiteko egutegi bat finkatu ahal izango zen, lehentasunen hurrenkera zehatz bati jarraiki.

Horregatik guztiagatik, pozik gaude sail horrek zera adierazi digulako: egoeraren mapa egiten ari direla, EAEko sare publikoko lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeen irisgarritasun-egoeraren gainean, eta datu-biltzea laster bukatuko dela. Orduan planifikatu ahal izango dira hezkuntza-sarean erabateko irisgarritasuna lortzeko egin behar diren jarduerak.

Berriro diogu, modu horretan, hezkuntza-administrazioak ahalmen-urritasunen batek sor ditzakeen hezkuntza-premiei erantzun ahal izango die, haur horien eskubideak bermatzeko neurri beharrezkoak hartuz, baita 0-3 urte bitartekoen mailan ere, non, sarritan, ahalmen-urritasunak eragotzi egin baitu goiz eskolatzea. Horregatik, lehentasuna du ikastetxeen irisgarritasuna bultzatzeko politika horrek, eta ikastetxe publikoen irisgarritasunari buruzko mapa hori amaitutakoan, gauzatzea espero dugu.

Niretzat ezin pozgarriagoa litzateke datorren urtean, osoko bilkura honen aurrean, honako hau adierazi ahal izatea: egoeraren mapa bukatu dela eta Hezkuntza Sailak, lehentasunik handiena duten beharren arabera, betearazteko plan bat ezarri duela.

Bestalde, merkataritza-lokaletan jarduera berriak jartzen direnean edo lehengoak aldatzen direnean, bereziki kezkarria da udalek arkitektura-oztopoak kentzeko araudia betetzen ote den ez kontrolatzea.

Gainera, ahalmen urrituek oraindik ere trabak aurkitzen dituzte beraientzat gordetako aparkalekuetan aparkatzeko, askotan toki horietan erreserba-eskubiderik ez duen norbaitek aparkatzen duelako, eta udalek egintza horiek ikusita, geldikeriaz jokutzen dutelako.

Euskal udalerrri askotan ez dira betetzen ahalmen urrituentzat gordeta izan behar diren aparkalekuen neurriari eta kokapenari dagozkion arauzko xedapenak. Beraz, jarduera-planak abiarazi beharko lirateke 20/1997 Legeko xedapenak eta lege hori zati batean garatzen duen 68/2000 Dekretukoak bete daitezten.

Pozik egon behar dugu Lan eta Gizarte Gaietarako Batzordeak, 2005eko otsailaren 7an, ahalmen urrituak EAEko lan-merkatu arruntean sartzeko plana onartu zuelako. Plan horretan islatzen dira erakunde honek ezgaituen lanerako aukerez prestatu zuen txosten berezian egindako gomendiotatik asko.

Txosten horren jarraipen-lana dela-eta, erakunde honek berriz adierazi du ahalmen urrituak EAEko lan-merkatu arruntean sartzeko planean aurreikusitako gutxienezko baldintzetatik abiatuta diseinatu eta ezarri behar dituztela euskal administrazio publikoek beren jarduerestrategiak, eta, horretarako, beste neurri batzuen artean, edozein kontratazio-motatarara zabaldu beharko dutela gordetako plazen kuota (%10 arte), batez ere aldi baterako lana denean, eta



xedapen hori espresuki aipatu beharko dutela ordezkapenetarako zerrendak edo poltsak kudeatzeko jarraibideetan.

Nolanahi ere, oraindik asko dago egiteko ahalmen urrituak lan-merkatuan erabat integratzea lortzeko. Horretarako, gizartea sentiberago bihurtzea ere oso garrantzitsua da.

VII. Oso bereziki eta hurkotasun beroz aipatu nahi ditut **terrorismoaren biktimak.**

Gizaki guztiek bizitza, osotasun fisiko eta morala, askatasuna eta duintasuna izateko duten eskubidea betetzea da ez bakarrik sistema demokratikoaren oinarria, baizik eta baita ere kode moral bat eta gizalege nahiz gizatasunaren funtsezko osagaiak dituen edozein gizarte-antolaketa eta bizikidetasunerako sistemarena, eta eskubide horiek lehentasuna dute gainontzeko eskubideen aldean. Eta oinarritzko, funtsezko eskubide horiek behin eta berriz eta modu basatian urratu dituzte hamarkadetan zehar bai ETA talde terroristak, baita izaera terroristako beste talde batzuek ere, esaterako, GAL, ATE, eta abarrek, pertsonak zentzugabe eta krudelki hilez eta milaka euskal herritarri mina eta sufrimendua eraginez, izugarrikeria horren zuzeneko edo zeharkako biktima izan baitira. Ararteko erakundeak eta ararteko honek beti esan izan dute, esaten dute eta esango dute indarkeria giza eskubideen aurkako minbizi izugarria dela, ez dela bateragarri gizarteko eta pertsonen arteko harremanetan nagusitu behar duten balio etiko eta demokratikoekin, eta, hortaz, herri-agintarien eta gizaki guzcion lehentasunezko helburua izan behar duela indarkeria gure bizitzatik, gure portaeratik, gure pentsamendutik guztiz erauztea.

2004ko urteari zegokion txostenean gure poza agertu dugu ETAk ez zuelako atentatuan inor hil, eta aurre berretsi egin nahi dugu poza hori. Hala ere, inoiz ez dugu ahaztu behar hortxe irauten duela pertsona askoren bizitzaren kontrako mehatxu terroristak, eta mehatxu horrek tortura psikologiko jasangaitza eta beren askatasuna lazki mugatzea ekarri diela pertsona horiei, beren familiariekoei eta beren lagunei. Gainera, herritar askori estortsio ekonomikoa egin zaie edo beren ondasunen kontrako mehatxuak, erasoak, hertsapenak edo atentatuak. Eta horrek guztiak gure herrikide anitzen oinarritzko eskubideak hautsi dituzenez gero, Arartekoak salatu egin behar du eta salatu egin nahi du.

Une honetan egoera berri bat sortu da, ETAk “su-eten iraunkorra” iragarri ostean. Erabaki hori ETA zeharo eta betiko desagertzearen hasiera izatea espero dugu.

Edonola, Arartekoak lanean jarraitu behar du indarkeriaren deslegitimazioa bultzatu eta sustatzeko, baita ere bakea eta elkarrekiko errespetua sendo ezarri eta balio horietan sakontzeko eginkizunean herri-agintariei eta herritar guztiei parte harrarazteko. Oraindik ez dugu, ez, lan makala euskal gizartearen egitura morala bere onera ekarri nahi badugu, barren-barrenean zaurituta baitago indarkeriak eta giza eskubideen urratze larriak zuzenean nahiz zeharka ekarri dituen ondorioengatik.

Era berean, gertaerak edonola jazotzen direla ere, Arartekoak lanean jarraitu behar du herri-agintariak eta herritar guztiek indarkeriaren biktimen egoerarekiko enpatia izan dezaten,



haienganako elkartasuna areagotu dadin eta biktimei justizian eta duintasunean oinarrituriko erantzuna emateko neurriak gauza daitezten.

VIII. Gay, lesbiana eta transexualen eskubideez ere hitz egin nahi dut.

Homofobiak eta heterosexismo eskusibo eta baztertzailak gizarte-bazterkeria ikaragarria eragin dute mendeetan barrena, bai estigmatizazio eta diskriminazioa ere, joera homosexualen pertsonen –gay eta lesbianen– kontra eta identitate transexual eta transgenerokoa dutenen kontra. Horien aurka burutzen den oinarrizko eskubide funtsezkoen urratze larria amaitzeko, aurrerapauso itzelak egin dira gizartearen pentsaeran eta legerian. Alabaina, azpimarratu behar dugu gaur egun, oraindik ere, bere maitasuna erabat aske eta duintasun osoz bizitzera ausartzen ez den homosexual ugari dagoela. Horregatik, lanean jarraitu behar dugu, pertsona horientzat berriki erdietsi den berdintasun formalari, ahalik eta epe laburrean, benetako berdintasun soziala gehi dakion, oraindik hortxe baitiraute benetako berdintasuna eragozten duten elementu ahaltsu batzuk. Orobat, transexualen duintasuna eta berdintasuna babeste aldera, osasun publikoan zenbait protokolo prestatu behar dira, beharrezkoa denean, sexua berriz asignatzeko prozesu integralak ahalbidetu daitezten.

Aipagarria iruditzen zait anitz transexualentzat berebiziko garrantzia duela oraintsu Genero Identitateari buruzko Legearen proiektua onartu izanak.

IX. Atxilotuen edo askatasunik gabeko pertsonen eskubideei arreta berezia eskaintzen diegu, babes falta handiena izan dezakeen taldea osatzen dutelako.

Lehenago ere askotan adierazi dugun moduan, uste dugu komenigarria dela espetxeen alorreko aginpideak berekin dakartzan eginkizunak EAERI eskualdatzea.

Kudeatzeko orduan hurbil egotea lagungarri izan daiteke instalazioak berrizatzeko eta, batez ere, koordinazio handiagoa izateko, eta, areago, espetxeko zerbitzuak –osasun, hezkuntza, gizarte laguntza, e.a.– sare komunitarioan sartzeko.

Begi-bistakoa da askatasunik gabeko zigorrak gizarteratzera orientatu behar direla dioen betebeharra herri-agintari guztiei dagokiela –betebehar hori Espainiako Konstituzioaren 25.2 artikuluan ezarrita dago, oinarrizko eskubideen artean–. Beraz, egungo egoeran gaudela ere, euskal administrazioek esku hartu behar dute gure lurraldeko espetxeetan zigorra betetzen ari diren edo bete dutenen arazoak eta gabeziak arintzeko, eta ahultasun bereziko egoeran dagoen eta gizarteratzeko berariazko zailtasunak dituen gizarte-taldetzat hartu behar dituzte espetxeratuak.

Edonola, onartu beharra dago euskal administrazioak, era desberdinetan eta intentsitate ezberdinaz, arreta ematen ari zaiela espetxean dauden pertsonen edo espetxetik atera direnen, eta gure iritziz, halaxe jarraitu behar dute eta laguntza handiagoa eman.



Hamar urte igaro dira Arartekoak euskal kartzelen egoerari buruzko txosten monografikoa aurkeztu zuenetik. Txosten hartan kezkatzeko arrazoi ugari antzeman ziren eta, adierazi genuenez, ezinbestekoa zen herri-agintariek araudi bat sortzea eta baliabide materialak ematea, hiru lerro nagusi hauetan aurrera egiteko: askatasunik gabeko zigorraren orde, beste aukera batzuk bultzatzea, zigorra erregimen irekian betetzeko formulen eraginkortasuna eta, azkenik, presoek beharrak gizarte-zerbitzuen sare komunitarioan sartzera. Zer aldatu da ordutik?

Batetik, espetxeak gainezka daude orain ere, profesional gutxi dago eta laneko eta prestakuntzako jarduerak ez dira nahikoa. Baina kezkarriena hau da: gure azken ikustaldietan egiaztatu dugunez, proposatu genuen bidean aurrera egin beharrean, orain iraganean baino larriagoak dira gure espetxe-sistemaren disfuntzio haiek. 1995eko kode penalak, delituari aurre egiteko erantzun ia bakartzat, askatasunik eza onetsi zuen, eta, horrekin batera, zigorra gehitzea ekarri zuen praktikan. Orduz geroztik onartu den legeriak, zigorra betetzeko moduari dagokionez, baimenak eta erregimen irekia lortzeko aukerak mugatzen dituzten moduak ezarri ditu. Badirudi halako erreformetan beti erabiltzen den bergizarteratzeari buruzko erretorika alde batera utzita, praktikan herri-agintariek aurrerantz ihes-edo egin dutela, eta horren ondorioz daukagu orain Europako herrialde guztien artean biztanle bakoitzeko preso kopururik handiena. Portaera horrek presoek itxaropena galarazten diela egiaztatu dugu, eta profesionalei, berriz, interesa. Horrek, halabeharrez, larriagotu egiten ditu espetxeetako tentsioak, hondatu bizikidetasuna eta areagotu gatazkak.

Arazo horiei beste batzuk ere gehitzen zaizkie, eta oso agerikoa den zerbait gogorarazten digute: espetxeetako legeria betetzeko orduan, ahalegin berezia egin behar dela presoek banan-banako tratua ziurtatzeko. Izan ere, buru-hiltzeek eragin kezkarria dute, presoek artean buruko gaitza da gaitz nagusietako bat, gehitu egin dira genero-indarkeriatatik zigortutako presoak.

Jakina, presoek banan-banako tratua emateko, bizi-baldintza duinak behar dira, oinarritzko beharrek guztiz estalita egon behar dute. Horrexegatik konpondu behar dira lehenbailehen Euskal Herriko hiru espetxeek dituzten egiturazko eta mantentzeari buruzko akatsak.

EAEko administrazioak berari bakarrik dagozkion zerbitzuetan antzeman diren akatsak konpontzen ahalegindu behar du (presoak lekuz aldatzea, ospitaleetan zaintza bereziko unitateak kudeatzea, e.a.). Era berean, laguntza gehitu behar du jadanik laguntza ematen ari den alorretan, bereziki espezialisten edo ospitaleen osasun laguntzan, droga-mendekotasunaren arloan eta hezkuntzan, izan ere, espetxeetan oraindik ez da irakaslerik jarri. Batez ere azpimarratu behar dugu euskal administrazioek espetxean ez sartzeko baliabideak sortu behar dituztela, edo espetxetik ateratzea erraztuko dutenak. Delituak eragotziko dituzten gizarte-politikak ditugu gogoan, baina baita ere buruko gaitza edo beste gaixotasun larri batzuk dituztenentzako berariazko zentroak, erregimen irekiko unitateak, toxikomaniak tratatu eta sendatzeko zentroak, espetxetik ateratzeko unean diru-laguntzak ematea, edo lan munduan sartzeko berariazko neurriak.

X. Gaitz kronikoak –fisikoak edo mentalak– dituzten pertsonak gero eta toki zabalagoa hartu behar dute politika publikoetan, halaxe eskatzen baitu aukera-berdintasunean,



elkartasunean eta diskriminazioa edo bazterkeria sor dezaketen zertzeladak neutralizatu edo berdintzean oinarritutako gizarte batek, eta, gainera, gizartean ugaritu egin baitira gaitz kronikoren bat duten pertsonak. Arartekoan duela gutxi sortu dugun alor formalean, jarduera publikoak kontrolatzen eta sustatzen jardungo dugu, pertsona horiek estatu sozialaren eta eskubideak bermatzeko sistemaren barruan sartuta egon daitezen. Gure ustez, plan estrategiko soziosanitarioa garatzea eta gauzatzea izan daiteke aipatutako helburuak lortzeko bide egoki bat.

Seropositiboek eta hiesa dutenek kirurgia estetikoko eta ugalkortasun tratamenduetako tekniketarako laguntzak jasotzeari buruz, bidezko zenbait eskaera egin dituzte GIB-HIESaren esparruan lan egiten duten elkarrekin. Horien gainean, atal honetan agerian jarri nahi dut erantzun egokia izan dutela Osasun Sailaren aldetik, bi eskaera horiek osasun-laguntzen katalogoan sartu baitira.

Bestalde, berriro aipatu behar dut, ezinbestean, herri-administrazioen konpromiso handiagoa eta koordinazio hobea behar direla gaitz kronikoa duten pertsonen beharrei erantzun egokiagoak emateko, baita gaixo horiek –sarridan muturreko egoeretan– zaintzen dituzten familiartekoen beharrei hobeto erantzuteko ere.

XI. Azkenik, erabat baztertuta bizi diren pertsonen mintzatuko naiz.

Txosten berezi bat bukatu berria dugu etxerik gabe eta bazterkeria larrian dauden pertsonen oinarrizko beharrei emandako erantzunaz. Duela bi egun eman diogu Legebiltzarreko lehendakariari.

Etxerik gabeko pertsonen biztanleriaren sektore ezin ahulagoa osatzen dute, izan ere, oinarrizko beharrak estali gabe izaten dituzte eta, oso maiz, beren egoerari ezgaitasunak edota gaixotasunak (fisikoak, mentalak, alkohol edo droga mendekotasunak...) gehitzen zaizkio; ezgaitasun edo gaixotasun horien larritasuna aldakorra da, pertsonaren eta egoera horretan daraman denboraren arabera. Etxerik gabeko pertsonen profila aldatuz joan da, eta, pertsona horiek zenbatu edo horien ezaugarriak adieraztea azterlan honen xede ez bazen ere, orain etxerik gabeko pertsona gehiago dagoela egiaztatu dugu, beste garai batean, ziur aski, beren familien edo gizartearen sarean laguntza jasotzen zutenak. Orain oso desberdinak dira zergatiak eta profilak. Pertsona horiek ez daukate antolatze edo laguntzak eskatzeko gaitasunik, sistematik kanpo daudelako eta gizarteko baliabideetan edo dauden erakundeetan parte hartzen ez dutelako. Horregatik, horrelako txostenak funtsezkoak izaten dira beren egoera eta beharrak hobeto ezagutzeko.

Hori dela eta, Ararteko erakundeak lehen hurbiltze-lana egin du txosten horretan, berriaz pertsona horientzat dauden edo gehienbat horiek erabiltzen dituzten baliabide eta zerbitzuen oraingo sarea ezagutu, deskribatu eta aztertze, baita ematen ari den erantzuna eta dauden baliabideak hobetzeko jardunbideak proposatzeko ere. Halaber, gogoeta eragiteko eta gure gizartean bazterkeria larria areagotzen ari diren zergatien inguruko eztabaida pizteko ere balio izatea espero dut.



Bukatzer a noa. Eskueta duzen txostenaren beste irakurketa batzuk egin daitezke, era ezberdinetan irakur daiteke, beste gai batzuk azpimarratuz. Agian norbaitek beste gai batzuen aipamen falta nabaritu du. Txostenean, mintzaldi honetan aipatu ez diren hainbat gai aurkituko duzue. Denbora mugatua dugunez gero, ahalik eta laburren eman behar da ia 900 orrialdeko txosten baten berri.

Zerbait ziurta dezaket, ordea: Legebiltzar honetara entzunak izateko premia handiena duten euskal biztanleen ahotsa ekartzen saiatu naiz, beren arazoei erantzutea gehien behar duten biztanleena.

Bukatu baino lehen, Juan San Martín Euskadiko lehen arartekoa ekarri nahi dizuet gogora, erakunde hau jaso eta zutabe sendo eta iraunkorrak jarri zizkion-eta.

Besterik gabe, eskerrik asko zuen arretagatik, eta Legebiltzarraren ordezkari gisa, laguntza eskatzen dizuet Estatutuak eta Legeak eman dizkidaten eginkizunak bete ahal izateko.

Milesker.